

IRABAZI-ITURRIAK

Atal honetan gure enpresaren irabazi-iturriak zehaztuko ditugu. Irabazi-iturriak gure enpresak izango dituen diru-sarrerak dira.

Enpresa bat sortu ahal izateko diru-sarrera bat behar da hasieran. Batzuek mailegua eskatzen diote bankuari. Gure kasuan, azpiko taulan adierazi dugun bezala, gure aurrezkiak erabiliko ditugu, behar dugun diru-kantitatea ez delako oso handia.

HASIERAKO DIRU-SARRERA	
ITURRIA	IRABAZIA
Miren	500€
Laida	500€
Amets	500€
Iker	500€
GUZTIRA	2.000€



Enpresa sortu ahal izateko bakoitzak bere aurrezkietatik 500€ jarriko ditu hasierako inbertsioa ordaintzeko eta arazoren bat izanez gero, diru poltsa hori erabiltzeko.

Ondorengo taulan hilabetero izango ditugun diru-sarrerak azalduko dira. Lehenik eta behin, dirua zein iturritatik eskuratuko dugun jarri dugu. Ondoren, irabazia zenbatekoa den adierazi dugu. Eta azkenik, irabazi hori hilabeteko diru-sarreraren zein ehunekori dagokion azaldu dugu.

HILABETEKO DIRU-SARRERAK		
ITURRIA	IRABAZIA	HAZTAPENA
Produktuaren salmenta (IKEAk)	$540,00€ \times 250 = 135.000€$	%81,3

Produktuaren salmenta (gure enpresak)	540,00€ x 50=27.000€	%16,26
Tik Tok	52,00€	%0,03
Instagram	4.000,00€	%2,41
GUZTIRA	166.052,00€	%100

Tablet bakoitza 540,00€-tan salduko dugu. Hilabetero 300 salduko ditugula aurreikusten dugu, 50 gure webgunean eta 250 IKEAri. Sare sozialen bidez ere dirua lortuko dugu. Tik Tok eta Instagram sare sozialetan 250.000 jarraitzaile edukiko ditugula aurreikusten dugu; izan ere, kontua oso aktibo edukiko dugu eta eduki asko igoko dugu. Dena espero bezala joanez gero, irabaziak oso handiak izango dira eta enpresarekin aurrera jarraitu ahal izango dugu.

Hilabetero 166.052 € irabaziko ditugula aurreikusten dugunez, urteko diru-sarrera 1.992.624 €-koa izango da.